

ZERBITZU PUBLIKOAK - Haurreskolak

2021eko iraila

ASKI DA! DEKRETUZ INPOSATUTAKO EGUTEGIARI EZ!

Ikasturte berria hasi eta berehala jaso zenuten email bat esanez zehaztasun batzuk egin behar zituztela egutegian eta irailean bidaliko zutela proposamena. Ikasturtea hasi zenetik 8 egun pasa direnean, **gaur jaso duzue uztailaren 1ean zuzendaritza batzordeak sinatu zituen araudia eta 2021-2022 ikasturterako egutegi proposamena haurreskoletan.**

LAB Sindikatutik egutegiaren berri ez izateak hezitzaile eta familiekiko izugarritzko errespetu falta zela salatu genuen, eta normalean uztailan jasotzen genuen egutegiaren berri ez izateak familia eta hezitzaileengan sortu duen **egonezina gurea egin dugu**, atzerapen honek **bizitza pertsonala eta lana uztartzeko ekartzen dituen zailtasunak izugarritzkoak baitira.**

Proposamen berri honek, haurreskolak uztailaren 29ra arte irekita egon behar direla jasotzen du. Horrela Haurreskola haurrentzat 222 egun gehinez zabalik eta hezitzaileak lanean 212, lan hitzarmenaren 21.artikuluaren zehazten dena urratuz, non hezitzaileentzat 210 lan egun ezartzen diren eta arreta zuzeneko 206. **LAB-etik proposamen hau alde sozialarekin partekatu eta negoziatu gabekoa** izan dela salatu nahi dugu, izan ere, gaur jakin dugu uztailaren 23an burututako mahai negoziatzailearen aurretik sinatuta zegoela.

Ez dugu inolaz ere erabaki hau onartzen eta atzera botatzeko neurri guztiak hartuko ditugu.

Gure aburuz, Haurreskolak Partzuergoko gerentea den **Zorione Etxezarragak, Zuzendaritza batzordeak eta Hezkuntza sailak Haurreskolak Partzuergoko langileekiko erakusten duten utzikeria eta begirune eza onartezina da** eta hau ozen salatu nahi dugu. Aldebakarkeria alde batera uzteko deia egiten diegu beste behin ere, eta **langileei bete betean eragiten dieten erabakiak negoziatuak izatea aldarrikatzen jarraituko dugu.**

Zuen desadostasuna adieraztera ere animatzen zaituztegu, zuzendaritza batzordeko kideei emailaz zuen harridura, egonezina eta haserrea adieraziz, honako helbide hauetan : zorione.etxezarraga@haurreskolak.eus ; Jokin Bildarratz: h-idazkaria@euskadi.eus ; Xabier Aizpurua: huisvase@euskadi.eus. Denon artean lortuko dugu!

ANIMO ETA AURRERA